entrega-mota oro eta barruan harturik produktu horietan sartzeko ziren osagaiak, lehengaiak, gehigarriak eta substantzia deribatuak-, batere ez izateagatik erregistrarik, akonpainamenduko dokumenturik, fakturarik edo bestelako dokumenturik edo daturik, adibidez produktuen hornitzaileen eta jasotzaileen identitateari buruz, eta batere ez izateagatik informaziorik produktu horien identifikazio, izaera, jatorri, ezaugarri kualitatiboak eta produkzio eta banaketako konzioei buruz.

2. Etiketatzearen arloan.

- a) Eskubiderik gabe erabiltzea izendapen geografiko batek edo elikaduraren kalitatearen beste babes-figura edo ikur batzuek babesten dituzten izenak aipatzen dituzten adierazpenak, merkataritza-izenak, markak, sinboloak edo enblemak; edo babestutako izenekin edo zeinu edo enblema bereizgarriekin duten antz fonetiko edo grafikoagatik produktuen izaera, kalitate edo jatorriari buruz nahasbidea eragin dezaketena, nahiz eta "mota", "estiloa", "generoa", "imitazioa", "ordezkoa" edo antzeko beste termino batzuekin batera joan.
- b) Bidegabeki edukitzea, negoziatzea edo erabiltzea izendapen geografikoen edo elikaduraren kalitatearen beste babes-figura edo ikur batzuei dagozkien dokumentuak, zigiluak, etiketak edo bestelako identifikazio-elementuak, bai eta horiek faltsutzea, betiere delitu edo falta ez bada.
- c) Produktuak faltsutzea edo faltsututako produktuak saltzea, betiere delitu edo falta ez bada.

3. Ikuskapenaren arloan.

- a) Kautelaz atxikitako salgaiak baimenik gabe manipulatu, lekuz aldatu edo baliatzea, betiere zigiluak urratzen badira edo salgaiak atxikita zeuden instalazioetatik ateratzen badira.
- b) Uko egitea ikuskapen-zerbitzuen jarduketari.
- c) Hertsatzea, mehatxatzea, iraintzea, erre-

ga a título oneroso o gratuito y comprendiendo los ingredientes, las materias primas, los aditivos y las sustancias derivadas destinadas a ser incorporadas en dichos productos, por la ausencia total de registros, documentos de acompañamiento, facturas u otros documentos o datos, como la identidad de las personas suministradoras y receptoras de los productos, así como de informaciones relativas a esos productos, su identificación, naturaleza, origen, características cualitativas y condiciones de producción y distribución.

2. En materia de etiquetado.

- a) La utilización, sin derecho a ello, de indicaciones, nombres comerciales, marcas, símbolos o emblemas que hagan referencia a los nombres protegidos por una denominación geográfica u otras figuras de protección y distintivos de la calidad alimentaria; o que, por su similitud fonética o gráfica con los nombres protegidos o los signos o emblemas característicos, puedan inducir a confusión sobre la naturaleza, calidad u origen de los productos, aunque vayan acompañados de los términos "tipo", "estilo", "género", "imitación", "sucedáneo" u otros análogos.
- b) La indebida tenencia, negociación o utilización de documentos, precintas, etiquetas u otros elementos de identificación propios de las denominaciones geográficas u otras figuras de protección y distintivos de la calidad alimentaria, así como la falsificación de los mismos, siempre que no sea constitutivo de delito o falta.
- c) La falsificación de productos o la venta de productos falsificados, siempre que no sean constitutivas de infracción penal.

3. En materia de inspección.

- a) La manipulación, traslado o disposición, sin autorización, de mercancías intervenidas cautelarmente, si se violan los precintos o si las mercancías salen de las instalaciones donde fueron intervenidas.
- b) La negativa a la actuación de los servicios de inspección.
- c) Las coacciones, amenazas, injurias, re-





presaliatzea eta erasotzea ikuskapenaren eta kontrolaren ardura duten langileak, edo zehapen-espeditien-teen instrukziogileak, betiere arau-hauste penala ez baldin bada.

- d) Egitateen egiarekin bat ez datozen ziurtagiriak eta txostenak egitea ikuskapen eta kontroleko edo ziurtapenerako organoek.
- e) Saio, proba edo ikuskapenak osorik ez egitea edo haietatik emaitza ez-zuzenak ateratzea, egitateak behar adina ez egiaztatzeagatik edo arau teknikoak behar bezala ez aplikatzeagatik, baldin eta horien ondorioz kalte oso larria edo arrisku oso larri eta berehalakoa eragiten bazaie pertsoneri, animaliei edo ingurumenari.

4. Beste arau-hauste oso larri batzuk:

- a) Aldaketa, aizunketa, faltsuketa edo iruzurra hirugarren batzuen bidez hedatzea dakarten arau-hausteak, haiei emanez egitate horiek egin, ezkutatu edo estaltzeko behar diren gai, bitarteko edo prozedurak.
- b) Partez edo osoki osasun-araudiaren arau-hauste larriekin batera gauzatu diren edo arau-hauste horiek egiten laguntzeko edo estaltzeko baliatu diren arau-hausteak.
- c) Pertsonentzat, animalientzat eta ingurumenerako arriskua dakarten praktika, tratamendu edo prozesuen bidez egin, eraldatu edo merkaturatzea nekazaritza eta elikadurako produktuak.
- d) Elikadura-produktuak egite aldera baimendu gabeko makina, instalazio edo produktuak edukitzea elikagaiak egiteko edo ontziratzeako industrien lokaletan, baldin eta pertsonentzat, animalientzat edo ingurumenerako arriskua badakarte.
- e) Baimenik gabe aritzea, nahitaezkoa izan arren, nekazaritza eta elikadurako produktuak, edo nekazaritza eta elikadurako produkzio eta komertzializatorako mate-

presalias y agresiones ejercidas sobre el personal encargado de la inspección y control, así como sobre los instructores de los expedientes sancionadores, siempre que no sean constitutivas de infracción penal.

- d) La expedición, por parte de los organismos de inspección y control o de certificación, de informes o certificados cuyo contenido no se ajuste a la realidad de los hechos.
- e) La realización de ensayos, pruebas o inspecciones de forma incompleta o con resultados inexactos, por una insuficiente constatación de los hechos o por la deficiente aplicación de las normas técnicas, cuando de la misma resulte un daño muy grave o se derive un peligro muy grave e inminente para las personas, animales o el medio ambiente.

4. Otras infracciones muy graves:

- a) Las infracciones que supongan la extensión de la alteración, adulteración, falsificación o fraude a realizar por terceros, a quienes se facilita la sustancia, medios o procedimientos para realizarlos, encubrirlos o enmascararlos.
- b) Las infracciones que, en todo o en parte, sean concurrentes con infracciones graves a la normativa sanitaria o que hayan servido para facilitar o encubrir las mismas.
- c) La elaboración, transformación o comercialización de productos agroalimentarios mediante prácticas, tratamientos o procesos que impliquen riesgo para las personas, animales y medio ambiente.
- d) La tenencia de máquinas, instalaciones o productos no autorizados para la elaboración de productos alimentarios en locales de las industrias elaboradoras o envasadoras, cuando entrañen riesgo para las personas, animales y medio ambiente.
- e) El ejercicio de actividades relacionadas con cualquiera de las etapas de la producción, transformación y comercialización de productos agroalimentarios, o de





ria eta elementuak, produzitu, eraldatu edo komertzializatzeko etapetako edozeinek zerkusian daukaten jardueretan, edo baimenean jasotze gabe dardela edo baimena baliogabetuta dutela aritzea jarduera horietan, baldin eta arriskua badakarte pertsonentzat, animalientzat edo ingurumenerako".

Hamabosgarren artikulua. 109 artikuluko 2. zenbakian bigarren paragrafo bat sortzen daio Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeari, idazkera honekin:

"2. Hertsapen-isunak errepikatu egin ahal izango dira hilabete baino txikiagoak izango ez diren denbora-tarteetan, eta beraien zenbatekoa ezingo ba izan isun gisa jarritako zehapenaren zenbatekoaren ehuneko hogeita hamar baino gehiago. Honako irizpideak hartuko dira kontuan hertsapen-isunok ezartzerakoan:

- a) Konpontze-obligazioa betetzeari dagokionez izandako atzerapena.
- b) Obligazioak ez betetzeari dagokionez intenzionalitatea edo errepika egotea.
- c) Eragindako kalteen izaera".

Hamaseigarren artikulua. 109 artikuluan 3. zenbakia sortzen daio Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeari, idazkera honekin:

"Obligazioa daukan pertsona edo erakundeak ordaintzen ez badu, hertsapen-isunak premiamendubidetik eskatu ahal izango dira, behin hogeita hamar egun baliadun pasatu ondoren isunaren jakinarazpenetik".

Hamazazpigarren artikulua. 109 artikuluan 4. zenbakia sortzen daio Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeari, idazkera honekin:

"Hertsapen-isunak independenteak eta bateragarriak izango dira ezarri daitezkeen zehapenekiko".

Hemezortzigarren artikulua. 111 bis artikulua sortzen daio Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeari, izenburu

materias y elementos para la producción y comercialización agroalimentaria, sin estar autorizado, cuando esta autorización sea preceptiva, o cuando las actividades no estén contempladas en la mencionada autorización o la misma haya sido cancelada, cuando implican riesgo para las personas, animales o medio ambiente".

Artículo decimoquinto. Se crea un segundo párrafo del apartado 2 del artículo 109 a la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, con el siguiente tenor:

"2. Las multas coercitivas podrán ser reiteradas por lapsos de tiempo no inferiores a un mes y su cuantía no podrá exceder del treinta por cien de la cuantía de la multa impuesta como sanción, teniendo en cuenta para su fijación los criterios siguientes:

- a) El retraso en el cumplimiento de la obligación de subsanar.
- b) La existencia de intencionalidad o reiteración en el incumplimiento de las obligaciones.
- c) La naturaleza de los perjuicios causados".

Artículo decimosexto. Se crea un apartado 3 del artículo 109 a la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, con el siguiente tenor:

"En caso de impago por la persona o entidad obligada, las multas coercitivas serán exigibles por vía de apremio una vez transcurridos treinta días hábiles desde su notificación".

Artículo decimoséptimo. Se crea un apartado 4 del artículo 109 a la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, con el siguiente tenor:

"Las multas coercitivas serán independientes y compatibles con las sanciones que puedan imponerse".

Artículo decimoctavo. Se crea un artículo 111 bis a la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, con el siguiente título y tenor:





eta idazkera honekin:

"111 bis artikulua. Berrerortzea

Lege honen ondorioetarako, berrerortzea gertatu da arau-hausteen erantzuleak diren pertsona fisiko edo juridikoen mota bereko arau-hauste bat baino gehiago egin badute hemezortzi hileko epean eta hori hala deklaratu bada ebazpen irmo bidez".

Hemeretzigarren artikulua. 111 ter artikulua sortzen zaio Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeari, izenburu eta idazkera honekin:

"111 ter artikulua. Preskripzioa

1. Lege honetan tipifikatutako arau-hauste oso larrien preskripzioa bost urtera izango da, larriena hiru urtera eta arinena urtebetera, arau-haustea egin den egunetik kontatzen hasita.
2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenen preskripzioa bost urtera izango da, larriena hiru urtera eta arinena urtebetera, zehapena ezartzen duen ebazpena irmoa izaten hasten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita".

Hogeigarren artikulua. 111 quater artikulua sortzen zaio Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeari, izenburu eta idazkera honekin:

"111 quater artikulua. Zehazpenen erregistroa eta publizitatea

1. Lege honetan erregulatutako erregistroetan zehapenei buruzko atal bat egongo da, eta hartan idatziko dira arau-hauste mota batzu eta besteengatik eman diren xedapen irmoak.
2. Arau-hauste oso larriengatik emandako xedapen irmoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion lurralde historikokoan argitaratuko dira".

Hogeita batgarren artikulua. Hirugarren xedapen gehigarria sortzen da, testu honekin:

"Hirugarrena. Hizkuntza-esubideak

Legea betetzeko neurriak hartzen direnean, euskal herri-administrazioek euskararen eta gaztelania-

"Artículo 111 bis. Reincidencia

A los efectos de la presente ley, existirá reincidencia cuando las personas físicas o jurídicas responsables de las infracciones cometieran, en el término de dieciocho meses, más de una infracción de la misma naturaleza y así haya sido declarado por resolución firme".

Artículo decimonoveno. Se crea un artículo 111 ter a la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, con el siguiente título y tenor:

"Artículo 111 ter. Prescripción

1. Las infracciones muy graves tipificadas en esta ley prescribirán a los cinco años, las graves a los tres años y las leves al año, contados desde la fecha en que la infracción se hubiese cometido.
2. Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los cinco años, las graves a los tres años y las leves al año, contados a partir del día siguiente a que adquiriera firmeza la resolución por la que se imponga la sanción".

Artículo vigésimo. Se crea un artículo 111 quáter a la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, con el siguiente título y tenor:

"Artículo 111 quáter. Registro y publicidad de las sanciones

1. En los registros regulados en esta ley existirá una sección correspondiente a sanciones, en la que se anotarán las resoluciones firmes que por las diversas clases de infracciones hayan sido adoptadas.
2. Las sanciones firmes por infracciones muy graves deberán ser publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del territorio histórico correspondiente".

Artículo vigésimo primero. Se crea una disposición adicional tercera, con el siguiente texto:

"Tercera. Derechos lingüísticos

A la hora de adoptar medidas para el cumplimiento de la ley, las administraciones públicas vascas





ren erabilera bermatuko dute kanpoko harremanetan. Halaber, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak haiekin dituzten harremanetan euskara eta gaztelania, ahoz zein idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da".

Hogeita bigarren artikulua. Aldatu egiten da Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen eranskina, honela idatzita gelditu dadin:

"ERANSKINA

Honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidego-ko Nekazaritza eta Elikadura Industrien Erregistroan, lege honen 60. artikuluan ezarritakoan, jaso beharko diren nekazaritza eta elikadurako industrien jarduerako sektoreak eta nekazaritza eta elikadurako produktuen komertzializazioaren jarduerako sektoreak, ondoren erregelamendu bidez garatuko direnak:

garantizarán el uso del euskera y del castellano en las relaciones externas. Así mismo, se garantizará el derecho que asiste a las personas físicas y a los representantes de las personas jurídicas a utilizar el euskera y el castellano, tanto oralmente como por escrito, en sus relaciones con dichas administraciones y a recibir la atención en el mismo idioma".

Artículo vigésimo segundo. Se modifica el anexo de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, que queda redactado como sigue:

"ANEXO

Sectores de actividad de la industria agraria y alimentaria y de comercialización de productos agrarios y alimentarios que deberán contemplarse en el Registro de Industrias Agrarias y Alimentarias de la Comunidad Autónoma del País Vasco establecido en el artículo 60 de esta ley y que serán desarrollados reglamentariamente:





1. Haragikien industria.	Ganadua hil eta haragia kontserbatzea. Hegaziak hil eta hegaztiak kontserbatzea. Haragikien fabrikazioa. Hondakinen eta (AME) arriskuko material espezifikoen tratamendua.
2. Arrainaren industria.	Arrainkiak eta arrainetan oinarritutako produktuak egin eta kontserbatzea.
3. Landare-transformatuen industria.	Fruta, barazki, leka eta patatak prestatu, kontserbatu, ontziratatu, sailkatu eta eraldatzea.
4. Olio eta koipeen industria.	Landare eta animalietatik koipeak eta olioak fabrikatzea.
5. Esnekien industria.	Esne likidoaren fabrikazioa. Esnekien fabrikazioa. Izoziak egitea. Esnekiak ontziratatu eta kontserbatzea.
6. Errotaritzako industria.	Errotaritza-produktu, almidoi eta produktu amilazeoen fabrikazioa. Zerealen gordetegi eta biltegiak. Zereal eta hazien handizkako merkataritza.
7. Animalien elikagaigintzako industria.	Animaliei jaten emateko produktuen fabrikazioa. Ganaduaren elikagaien handizkako merkataritza.
8. Okindegi eta jateko pasten industria.	Ogiaren eta okintza eta gozogintzako produktu freskoen fabrikazioa. Gaileren eta okintzako eta gozogintzako iraupen luzeko produktuen fabrikazioa. Jateko pasten fabrikazioa.
9. Beste elikagai batzuen industria.	Azukre-industria. Kakao, txokolate eta konfitura-industria. Kafe, te eta infusioak ekoiztea. Eztia egin eta ontziratzea. Espezia, saltsa eta gozagarriak egin eta ontziratzea. Umeak elikatzeko prestakinak egin eta ontziratzea. Bestelako elikagaien fabrikazioa.
10. Edarien industria.	Alkoholun edariak distilatu eta botilaratzea. Hartzidura bidezko alkohol etilikoa distilatzea. Ardoak egin eta botilaratzea. Sagardoa eta frutekin egindako bestelako edari hartzitua egin eta botilaratzea. Bestelako edari destilatugabe batzuk egitea hartzidura bidez. Garagardoa fabrikatzea. Malta fabrikatzea. Ur mineralak ontziratzea. Freskagarriak fabrikatu eta botilaratzea.
11. Tabako-industria.	Tabako-industria.
12. Zurgintzako industria.	Zura zerratzea eta marruskatuz leuntzea; zura industria-prozeduraz prestatu, tratatu eta transformatzea.
13. Basoko produktuen industria.	Perretxikoak eta basoko fruituak prestatu, kontserbatu eta tratatzea.
14. Energia berriztagarriak lortzeko biomasaren eta lehengai organikoen industria.	Energia berriztagarria produzitzea, biomasatik eta nekazaritzako lehengaietatik.
15. Ongarrien industria.	Ongarrien industria.
16. Hainbat produkturako hozkailu-biltegia.	Hainbat produkturako hozkailu-biltegia.





1. Industria cárnica.	Sacrificio de ganado y conservación de carne. Sacrificio y conservación de volatería. Fabricación de productos cárnicos. Tratamiento de despojos y MER (material específico de riesgo).
2. Industria del pescado.	Elaboración y conservación de pescados y de productos a base de pescado.
3. Industria de transformados vegetales.	Preparación, conservación, envasado, clasificación y transformación de frutas, hortalizas, legumbres y patatas.
4. Industria de aceites y grasas.	Fabricación de grasas y aceites vegetales y animales.
5. Industria láctea.	Fabricación de leche líquida. Fabricación de productos lácteos. Elaboración de helados. Envasado y conservación de productos lácteos.
6. Industria de la molinería.	Fabricación de productos de molinería, almidones y productos amiláceos. Depósito y almacenamiento de cereales. Comercio al por mayor de cereales y simientes.
7. Industria de alimentación animal.	Fabricación de productos para la alimentación animal. Comercio al por mayor de alimentos para el ganado.
8. Industria de panadería y pastas alimenticias.	Fabricación de pan y productos de panadería y pasteles frescos. Fabricación de galletas y de productos de panadería y pastelería de larga duración. Fabricación de pastas alimenticias.
9. Industria de otros productos alimenticios.	Industria del azúcar. Industria del cacao, chocolate y confitería. Elaboración de café, té e infusiones. Elaboración y envasado de miel. Elaboración y envasado de especias, salsas y condimentos. Elaboración y envasado de preparados para la alimentación infantil. Elaboración de otros productos alimenticios.
10. Industria de bebidas.	Destilación y embotellado de bebidas alcohólicas. Destilación de alcohol etílico procedente de fermentación. Elaboración y embotellado de vinos. Elaboración y embotellado de sidras y otras bebidas fermentadas a partir de frutas. Elaboración de otras bebidas no destiladas, procedentes de fermentación. Fabricación de cerveza. Fabricación de malta. Envasado de aguas minerales. Fabricación y embotellado de bebidas refrescantes.
11. Industria del tabaco.	Industria del tabaco.
12. Industria de la madera.	Aserrado y cepillado de la madera; preparación, tratamiento y transformación industrial.
13. Industria de productos silvestres.	Preparación, conservación, tratamiento de setas y frutos del bosque.
14. Industria de biomasa y materia prima orgánica para la. Obtención de energía renovable.	Producción de energía renovable a partir de biomasa y materia prima agraria.
15. Industria de fertilizantes.	Industria de fertilizantes.
16. Almacenamiento frigorífico polivalente.	Almacenamiento frigorífico polivalente.

AMAIERAKO XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.





2. Mozioa, Alex Etxeberria Aranburu Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, euskal altzairutegien etorkizunari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0147]

EA-NV, ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Jarrai dezala inplikatzeko euskal altzairugintzaren etorkizunean, enpresen modernizazioa eta sostengarritasuna bultzatuz, haien produktuen internazionalizazioa lagunduz eta lanpostuak mantentzea babestuz, euskal fabrikek dituzten ekoizpen-gaitasunak ahal den gehiena erabiltzearen alde eginez.
2. Indartu ditzala dauden siderurgia-taldeekin egiten ari den kudeaketak, gure herriak sektore honetan dituen gaitasunak eta jakitea haien aurrean baloratuz, Euskadin sektore hau sendotzeko konpromisoa areagotu dezaten lortzeko, eta
3. Eutsi diezaiola sektorean bai foru-aldundiekin eta bai sindikatuarekin zeregin horietan lankidetzan aritzeko ildoari.
4. Lidergoa har dezala altzairugintzaren euskal sektore siderurgikora bideratutako estrategia batean. Estrategia horrek, sektoreko enprekin elkarlanean eta erakunde publikoen babesarekin, sektorearen berregituraketari helduko dio lehiakortasuna hobetuko duten etorkizuneko proposamenak eginez, produktuen espezializazioaren eta bereizketaren bidez, eta horien kostuak hobetuz; produktuen internazionalizazioari, eta orobat era orotako neurriak erabiltzeari, enpresei bideragarritasuna emateko Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek eskura dituzten tresna guztiak baliatuz".

2. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Alex Etxeberria Aranburu, parlamentario del grupo Nacionalistas Vascos, relativa al futuro de las acerías vascas. [09\11\03\00\0147]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y PV.

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. A seguir implicándose en el futuro de la industria vasca del acero, impulsando la modernización y sostenibilidad de las empresas, contribuyendo a la internacionalización de sus productos y apoyando el mantenimiento de los puestos de trabajo, apoyando que se utilicen al máximo las capacidades productivas de las plantas vascas.
2. A reforzar las gestiones que viene realizando con los grupos siderúrgicos existentes, poniendo en valor ante ellos las capacidades y saber hacer de nuestro país en este sector, con el objetivo de lograr un reforzamiento de su compromiso a favor del reforzamiento del sector en Euskadi.
3. A mantener la línea de colaboración en el sector tanto con las diputaciones forales como con los sindicatos en estas tareas.
4. A que lidere una estrategia para el sector siderúrgico vasco de la producción de acero. Estrategia que en colaboración con las empresas del sector, y con el apoyo de las instituciones públicas, aborde la reestructuración del sector con propuestas de futuro, que mejoren la competitividad mediante la especialización y diferenciación de sus productos y la mejora en los costes de los mismos. La internacionalización de los productos y la utilización de medidas de todo tipo haciendo uso de los instrumentos que tienen a mano el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales para dar viabilidad a las empresas".





3. Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, euskal liburutegiei eta Euskadiko irakurketa-sare publikoari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0148]

EA-NV, ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

"Eusko Legebiltzarrak Bilbo, Donostia eta Santurtziko udalei eskatzen die sar ditzatela euren udal-liburutegiak Euskadiko irakurketa-sare publikoan, Euskadiko Liburutegiei buruzko 11/2007 Legean xedatutakoa betez.

Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, halaber, beharrezkoak diren lankidetzajarduerak gara ditzala liburutegi horiek gaur egun duten eredia Euskadiko irakurketa-sare publikoan integratzeko eskatzen den ereduari egokitzea izan dezaten, egun ematen duten zerbitzuaren kalitatearen estandarrak bermatuz".

3. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, sobre bibliotecas vascas y red de lectura pública de Euskadi. [09\11\03\00\0148]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y PV.

"El Parlamento Vasco insta a los ayuntamientos de Bilbao, Donostia-San Sebastián y Santurtzi a que integren sus bibliotecas municipales en la red de lectura pública de Euskadi en cumplimiento de lo establecido en la Ley 11/2007 de Bibliotecas de Euskadi.

Así mismo insta al Gobierno Vasco a que desarrolle las actuaciones de colaboración necesarias para que las mencionadas bibliotecas puedan adecuar su actual modelo al exigido para su integración en la red de lectura pública de Euskadi, garantizando los estándares de calidad del servicio que actualmente prestan".





4. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Euskal Talde Popularrak, Aralar, Mistoa-Eusko Alkartasuna, Mistoa-Ezker Anitza-IU eta Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeek egindako legez besteko proposamena, Euskadiko enplegu babestuari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0694]

Jatorrizko testua onetsi da.

52/2012

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Onetsi dezala, 2012ko irailean, desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-politika aktiboen euskal araudia, kolektibo hori lan-munduan txertatzeari buruzko politikak barne hartuko dituen; lan-munduan txertatzea enplegu-zentro berezietan zein enpresa arruntetan, era integratu batean jasoko duen eredu orokor batetik abiatuta.
2. Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzako laguntzak mantendu eta eguneratu ditzala, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan txertatzea sustatzeko pizgarriak barne, zailtasun bereziak (% 33 edo gehiagoko ahalmen-urritasuna aitortuta duten garuneko paralisia, adimen-urritasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonak, eta % 65 edo gehiagoko urritasun fisiko edota sensoriala dutenak) dituzten langile desgaituen lanpostuari dagokion soldata-gastuaren lanbide arteko gutxieneko soldataren % 25eko diru-laguntzaren bidez.
3. Garatu eta bilakatu dezala, sektorearekin adostuta, "Balio-urritasunak dituzten pertsonentzako enplegu-zentro berezietan enplegua sortzen eta mantentzen laguntzeko plana", Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2011ko martxoan Eusko Legebiltzarrean aurkeztutakoa.
4. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta desgaitasuna duten pertsonen kolektiboaren orientazioan, prestakuntzan eta laguntzan espezializatutako entitateen arteko

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por los grupos parlamentarios Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Popular Vasco, Aralar, Mixto-Eusko Alkartasuna, Mixto-Ezker Anitza-IU y Mixto-UPyD, relativa al empleo protegido en Euskadi. [09\11\02\01\0694]

Aprobado el texto original.

52/2012

"El Parlamento Vasco insta a Gobierno Vasco a:

1. Aprobar una normativa vasca de políticas activas de empleo para las personas con discapacidad y presentarla ante el Parlamento Vasco en septiembre de 2012, que incluya las políticas respecto a la inserción de este colectivo, a partir de un modelo global que contemple de manera integrada la inserción laboral tanto en los centros especiales de empleo como en la empresa ordinaria.
2. Mantener y actualizar las ayudas a los centros especiales de empleo de iniciativa social (CEEIS), incluyendo los incentivos para el fomento de la integración laboral de las personas con discapacidad en centros especiales de empleo vía subvención del 25 % del salario mínimo interprofesional del coste salarial correspondiente al puesto de trabajo para las personas trabajadoras con discapacidad con especiales dificultades (personas con parálisis cerebral, discapacidad intelectual o enfermedad mental con un grado reconocido igual o superior al 33 %, y discapacidad física y/o sensorial con un grado reconocido igual o superior en grado al 65 %).
3. Actualizar y desarrollar, de manera consensuada con el sector, el "Plan de apoyo para el mantenimiento y creación de empleo en los CEE de la CAPV", presentado en el Parlamento Vasco por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco en marzo de 2011.
4. Articular la colaboración mediante la suscripción de convenios de colaboración entre Lanbide-SVE y las entidades especializadas en la orientación, formación





lankidetzaz gauzatu dezala, lankidetzaz hitzarmenak sinatuz, eskariaren berezitasuna eta kolektiboaren laneratzetasa baxua dela eta.

5. Jarrai dezala klausula sozialak sartzen Eusko Jaurlaritzaren Administrazio publikoaren kontratazio publikoan, diskriminazio positiboa ahalbidetuko dutenak, balio-urritasunak dituzten pertsonentzako gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziek eskaintzen dituzten zerbitzu eta produktuen erosketan.
6. Berma dezala euskal administrazio publikoek desgaitasuna dutenen gutxienezko kopurua betetzen dutela kontratazioetan.
7. Lehenetsuna eman diezaiola gizarte-ekimeneko enplegu babestuari, hau da, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko enplegu-zentroei. Zentro horien titularitatea entitate publikoena edo irabazi asmorik gabeko entitate pribatuena izango da, edo euren kapital sozialean, zuzenean edo zeharka, irabazi-asmorik gabeko entitateen edo etekinak entitatearen helburu sozialean berrinbertitzen dituzten pertsona desgaituen gehiengoa duten gizarte-ekonomiako entitateen partaidetza nagusia duten entitate publiko edo pribatuena".

y apoyo a la empleabilidad del colectivo de personas con discapacidad, por razón de la especialidad de la demanda y la baja tasa de activación laboral del colectivo.

5. Continuar incorporando cláusulas sociales en la contratación pública de la Administración pública del Gobierno Vasco que permitan una discriminación positiva en la compra de servicios y productos que prestan los centros especiales de empleo de iniciativa social.
6. Garantizar el cumplimiento en la Administración pública vasca de los mínimos de contratación de personas con discapacidad establecidos.
7. Dar prioridad al empleo protegido de iniciativa social (CEEIS), considerando como tal a los centros especiales de empleo de iniciativa social y sin ánimo de lucro en los que la titularidad del centro corresponde a entidades públicas o privadas de carácter no lucrativo o a entidades públicas o privadas participadas mayoritariamente en su capital social, de manera directa o indirecta, por entidades sin ánimo de lucro o entidades de economía social con presencia mayoritaria de personas con discapacidad que reinviertan sus beneficios al fin social de la entidad".





5. Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Gizarte Zerbitzuen Legearen garapen estrategikoari buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0689]

EA-NV, ES eta ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

53/2012

"Eusko Legebiltzarrak inplikaturako instituzioei eskatzen die:

1. Bultzatu dezatela Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapen normatiboa modu koordinatuan eta adostuan jarduera instituzio eskudun guztien artean.
2. Normatiboki garatu ditzatela katalogoan aurreikusitako zerbitzuen eskaintza antolatzeke dauden aukera batzu eta besteak, lege horretako 60.1 artikuluan aipatzen direnak, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen euskal sistema baten esparruan.
3. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren barruan bermatu dadila kalitatekoa, egonkorra eta sostengagarria den enplegu publikoa, eta orobat zerbitzu sozialen izaera unibertsala ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak ezartzen duen bezala.
4. 1. eta 2. puntuak adierazitakoa betetzeke dagokionez hirugarren sektoreko talde eta koordinakundeek ordezkariekin lan egin eta kolaboratu dadila, erregelamenduz aurreikusitako gizarte-zerbitzuak hitzartzeko eta eskaintzeko dauden aukera batzu eta besteak garatze aldera.
5. Bermatu dezatela legearen garapen egokirako beharrezkoa den nahikotasun finantzarioa, eta bermatu ditzatela orobat beste sistema batzuetatik eman behar diren konpentsazio ekonomikoak, aipaturako legearen 56.3 artikuluekin ados".

5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, sobre el desarrollo estratégico de la Ley de Servicios Sociales. [09\11\02\01\0689]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y PV.

53/2012

"El Parlamento Vasco insta a las instituciones implicadas a:

1. Impulsar el desarrollo normativo de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales de forma coordinada y consensuada entre todas las instituciones competentes.
2. Desarrollar normativamente las distintas posibilidades de organización de la prestación de los servicios previstos en el catálogo, señaladas en el artículo 60.1 de la citada ley, en el marco de un sistema vasco de Servicios Sociales de responsabilidad pública.
3. Que dentro del Sistema Vasco de Servicios Sociales se garantice el empleo público de calidad, estable y sostenible, así como el carácter universal de los servicios sociales tal y como establece la Ley 12/2008 de Servicios Sociales.
4. A que para el cumplimiento de lo reflejado en los puntos 1 y 2 se trabaje y colabore con los y las representantes de los grupos y coordinadoras del Tercer Sector para poder desarrollar las distintas posibilidades de concertación y prestación de los servicios sociales previstos reglamentariamente.
5. A garantizar la suficiencia financiera que sea necesaria para el adecuado desarrollo de la ley, así como las compensaciones económicas que se tienen que producir desde otros sistemas, de acuerdo al artículo 56.3 de la citada ley".





6. Mistoa-Ezker Anitza-IU legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, erlijioei ondasun higiezinen gaineko zerga kentzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0700]

Ezetsi egin da

6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Anitza-IU, relativa a la supresión del impuesto de bienes inmuebles a las confesiones religiosas. [09\11\02\01\0700]

Se rechaza





7. Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Tabakaleraren kultura-egitasmoaz behin betiko erabakia hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0687]

EA-NV, ES, ETP eta Mistoa-EA taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

54/2012

"Eusko Legebiltzarrak eskatzen dio Gobernuari:

1. Estrategikotzat har dezala, hitz honen zentzurik hertsienean, Tabakaleraren egitasmoa.
2. Tabakalera eraikinarentzat hitzartutako kultura-egitasmoa egiteko eta behin betiko gauzatzeko aktiboki parte hartzen segi dezala, dituen eskumenen barruan.
3. Gogoetarako hartutako epea amaitu delarik, Euskadiko kultur sorkuntza nazioartearekin lotzeko helburua duenez eta, horregatik, 2016 Kultur Hiribururako habe sendoenetako bat eta indar-gune handienetako bat denez, Tabakalerako Administrazio Kontseilua osatzen duten erakundeek adostu dezatela, lehenbailehen, eraikinak zer egitasmo hartuko duen bere baitan, eta osatu dezatela Tabakalera zuzendu eta kudeatzeko behar den lan-taldea".

7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa a acuerdo definitivo sobre el proyecto cultural de Tabakalera. [09\11\02\01\0687]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV, PV y Mixto-EA.

54/2012

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que:

1. Considere como estratégico, en el sentido más estricto de esta palabra, el proyecto de Tabakalera.
2. Continúe participando activamente, en el ámbito de sus competencias, en la elaboración y materialización definitiva del proyecto cultural consensuado para el edificio de Tabakalera.
3. Dado que ha finalizado ya el plazo acordado para la reflexión, y que Tabakalera es uno de los pilares más firmes de la Capitalidad Cultural de 2016 y una de sus mayores fortalezas en cuanto que entre sus objetivos está la vinculación de la creación de cultural de Euskadi al diálogo internacional, las instituciones que forman parte del Consejo de Administración de Tabakalera acuerden, cuanto antes, qué proyecto albergará, y constituyan el equipo de trabajo de dirección y gestión".





8. (berria). Adierazpen instituzionala, UNRWak Palestinan egiten duen lanari babesa emateko. [09\11\05\00\0060]

"1949an, 700.000tik gora palestinarren exodoa ekarri zuen arabiar-israeldar gerraren ostean, Nazio Batuen Erakundeak Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia sortu zuen (UNRWA, ingelesezko siglak), errefuxiatuak zegoen populazioaren hezkuntzaz, osasunaz eta oinarrizko beharrez arduratze aldera. UNRWaren agintaldia hiru urterako ezarri bazen ere, Palestinako errefuxiatuek bizi duten egoera deitoragarriak ez baitu irtenbiderik, agintaldia berriro egiten da behin eta berriz gaur arte.

62 urteko lan etengabe honetan, erbestean denbora luzeen eman duen populazio-taldea osatu dute Palestinako errefuxiatuek. UNRWaren erregistroetan 4.966.664 palestinar errefuxiatu agertzen dira, eta haien % 29k, gutxi gorabehera, agentziak lagundutako 58 kanpamenduetako batean jarraitzen du gaur egun ere. Gainerakoa kanpamendu ez-ofizialetan edo harreraherrialdeetako hirietan edo herrietan bizi da. UNRWaren bost jarduera-eremuetan (Siria, Libano, Jordania, Gaza eta Zisjordania), errefuxiatuen ia % 33,2k 18 urte baino gutxiago du.

Iragan den uztaillean, Eusko Legebiltzarraren ordezkari bat, Eusko Jaurlaritzarekin, zona horretan lanean ari diren euskal GKEekin eta UNRWarekin batera, Palestinara joan zen egoera ikusteko eta eremu hartako euskal proiektuen bilakaera ebaluatzeko. Han, aukera izan zuten ikusteko bai palestinar errefuxiatuek bizi duten egoera bai hainbat erakundek palestinar populazioaren giza eskubideen defentsan egiten duten lana.

Argi gelditu zen israeldar blokeoak aurrekaririk gabeko giza krisi bat eragin duela. Blokeoa Nazioarteko Giza Zuzenbidearen aurkakoa da, populazioaren giza eskubideen bortxaketa masiboa eragiten du eta ez du biderik ematen populazioak giza laguntzarekiko menpekotasuna gaindi dezan (Gazako populazioaren % 80k giza laguntzaren beharra du). Blokeoaren ondorioz, azken bi urteotan hirukoitzu egin da egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi eta UNRWari egunero elikagaiarik eskatu behar dion pertsona kopurua (100.000tik 300.000).

Testuinguru horretan, Palestinako emakume errefuxiatuen egoera, haien giza eskubideak, haien

8. (nuevo). Declaración institucional de apoyo a la labor de la UNRWA en Palestina. [09\11\05\00\0060]

"En el año 1949, tras la guerra árabe-israelí que provocó el éxodo a más de 700.000 palestinos, Naciones Unidas crea la Agencia de Naciones Unidas para los refugiados de Palestina (UNRWA, por sus siglas en inglés) con el objetivo de encargarse de la educación, la salud y las necesidades básicas de la población refugiada. El Mandato de UNRWA se estableció por tres años, no obstante, debido a la falta de solución a la deplorable situación en la que se encuentran los refugiados de Palestina, el mandato se ha venido renovando hasta la actualidad.

A lo largo de sus 62 años de trabajo ininterrumpido, los refugiados de Palestina han pasado a constituir el grupo de población que durante más tiempo ha permanecido en el exilio. Los registros de UNRWA cuentan con 4.966.664 refugiados palestinos, de los que aproximadamente el 29% sigue viviendo en alguno de los 58 campamentos asistidos por la Agencia. El resto vive en campamentos no oficiales o en las ciudades o pueblos de los países de acogida. A lo largo de las cinco áreas de operación de UNRWA (Siria, Libano, Jordania, Gaza y Cisjordania) casi el 33,2% de los refugiados son menores de 18 años.

El pasado mes de Julio, una delegación del Parlamento Vasco junto con el Gobierno Vasco, ONG'S vascas que desarrollan proyectos en la zona y la UNRWA viajó a Palestina con la intención de observar la situación y evaluar el progreso de los proyectos vascos en la zona. Allí, se visualizó la situación que viven los refugiados palestinos y la labor que desde las diferentes organizaciones se lleva a cabo en la defensa de los DDHH de la población palestina.

Se pudo constatar que el bloqueo israelí ha creado igualmente una crisis humanitaria sin precedentes. El bloqueo es contrario al derecho humanitario Internacional, supone una violación masiva de los derechos humanos de la población e impide que la población se libere de la dependencia de la ayuda humanitaria (el 80% de la población en Gaza, depende de la ayuda humanitaria). Este bloqueo ha producido que el número de personas que vive con menos de un dólar al día y solicita diariamente asistencia alimentaria a UNRWA se haya triplicado en los últimos dos años (de 100.000 a 300.000).

En este contexto la situación de las mujeres refugiadas de Palestina, en relación con el





eskubide zibil, ekonomiko eta sozialak aitortzea, nahitaez markatzen dute okupazioak eta gizarte eta kultura gehienbat patriarkalak. Gazan, zehazki, 50 hilabeteko etengabeko krisiak eta blokeoak ondorio psikosozial dramatikoak eragiten dizkie emakumeei.

Era berean, emakumeak eta neskek babesten dituen legediak makina bat interpretazio izaten du iraganetik datozen lege eta kode ugariaren ondorioz eta indarrean segitzen duten jarrera kultural batzuen eraginez. Nahiz eta konstituzioaren "zirriborroak" ezartzen duen gizonak eta emakumeak berdinak direla legearen aurrean, hamaika araudik eta errealitateak berak kontra egiten diote oinarritzko arau horri. Horregatik, ezinbestekoa da emakumeen parte-hartzea eremu guztietan bultzatzea (lanean, hezkuntzan, politikan, gizartearen...) errefuxiatuak dagoen erkidegoari, partikulari, eta palestinar gizarteari, orokorrean, haien eskubideak erabat aitortzeko.

Laburbilduz, ezinbesteko betekizuna da emakumeak sektore publikoan eta ekonomikoan sartzea palestinar gizartearen garapenerako. Genero-desberdintasunek koste handia daukate Palestinaren etorkizunarentzat, okupazioarena, pobreziaarena eta beste desberdintasun batzuen bezainbatekoa.

Egoera hori ikusita, UNRWAK "Berdintasuna Lanean" ekimena abiatu zuen 2007an, Gazako zerrendako emakumeen egoerari begira berdintasuna eta zuzentasuna bultzatze aldera. Ekimenaren helburua da emakumeak beraiek izatea protagonistak eta parte-hartzaile aktiboak esparru publikoetan eta pribatuetan, hautatzeko askatasuna erabiltzeko gai izatea eta arlo pertsonalean zein profesionalean haien burua garatzeko kapaz izatea. Horretarako, agenda sozialaren xedea da ordena sozial, politiko eta ekonomiko zuzena ezartzea, maila guztietan ezartzea ere.

Horregatik, uste baitugu erabakigarria dela UNRWARI babesa ematea, hura da-eta Palestinako populazio errefuxiatuari laguntza ematen espezializatu den agentea eta Ekialde Ertaineko egonkortasuna lortzen laguntzen duten oinarritzko agente neutraletako bat:

- Eusko Legebiltzarrak aitortzen ditu UNRWAK Palestinako populazio errefuxiatuaren alde egin dituen ahaleginak bai eta Eusko Jaurlaritzak lan horri eman dion etengabeko babesa ere.
- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta,

reconocimiento de sus derechos civiles, económicos, sociales y humanos, viene ineludiblemente marcado por la ocupación, y una sociedad y cultura eminentemente patriarcal. En Gaza concretamente, el bloqueo y la crisis continuada durante más de 50 meses tiene dramáticas consecuencias psicosociales para las mujeres.

Del mismo modo, el marco legal que ampara a mujeres y niñas está sujeto a un amplio rango de interpretaciones derivadas de una multitud de leyes y códigos heredados que se suman a ciertas actitudes culturales prevalecientes. Aunque el "borrador" de la constitución declara que hombres y mujeres son iguales ante la ley, múltiples normativas y la realidad contradicen esta norma básica. Por ello, fomentar la participación de las mujeres en todos los ámbitos, el profesional, el educativo, el político, el comunitario, es imprescindible para el pleno reconocimiento de los derechos de la comunidad refugiada en particular y de la sociedad palestina en general.

En resumen, la inclusión de las mujeres en el sector público y económico es una condición indispensable para el desarrollo de la sociedad palestina. Las desigualdades de género tienen un alto coste para el futuro de Palestina, al mismo nivel que la ocupación, la pobreza u otras desigualdades.

Ante esta situación UNRWA puso en marcha la iniciativa "Igualdad en Acción" en Gaza en el año 2007 para promover la igualdad y equidad en relación a la situación de las mujeres en la franja. El objetivo de esta iniciativa es que las mismas se conviertan en protagonistas y en participantes activas en las áreas públicas y privadas, que tengan la capacidad de ejercer la libertad de elección y de desarrollarse personal y profesionalmente, de manera que la agenda social vaya dirigida al establecimiento de un orden social, político y económico equitativo a todos los niveles.

Por todo ello, y considerando crucial el apoyo a UNRWA como un agente especializado en la asistencia a la población refugiada de Palestina y como uno de los agentes neutrales fundamentales que contribuyen a la estabilidad en Oriente Medio:

- El Parlamento Vasco, reconoce los esfuerzos desarrollados a lo largo del mandato de UNRWA a favor de la población refugiada de Palestina, así como el apoyo continuado del Gobierno Vasco a su labor.
- El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco





zehazki, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatzen die hitzarmen bat sinatu dezaten UNRWArekin Gazako emakumeen ahalduntzea bultzatzeko Gazako zerrendan egiten ari diren proiektuen bidez.

- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala bultzatzen UNRWAK errefuxiatuen kanpamenduetan egiten duen lana eta jarrai dezala sustatzen UNRWA Euskadik euskal gizartearen egiten duen sentsibilizazio- eta heziketa-lana.

y en concreto a la Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo, a la firma de un Convenio con la UNRWA, con el objetivo de contribuir al empoderamiento de la mujer en Gaza a través de los proyectos que se ejecutan en la franja de Gaza.

- El Parlamento Vasco, insta al Gobierno Vasco a continuar apoyando la acción de UNRWA en los campamentos de refugiados y promoviendo el trabajo de sensibilización y de Educación al desarrollo de UNRWA Euskadi entre la sociedad vasca".

